



## ALKATE EBAZPENA

### MIKEL UHARTE MARTIJA JAUNAK, LARRAUNGO ALKATEAK, GAURKO EGUNAREKIN HONAKO EBAZPENA EMAN DU:

Gaia: Larraungo Udaleko administrari ofizial lanpostua. Behin betiko zerrenda onartzea eta epaimahaia izendatzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean.

Maiatzaren 20ko 30/2022 Alkate Ebazpenaren bidez onetsi zen 2022rako lan publikoaren eskaintza, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak ezartzen dituen, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Aipatu ebazpena 2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 26koan, argitaratu zen.

2022ko azaroaren 8ko Batzar Erabakiaren bidez, toki erakunde hau osorik atxikitu zitzaion uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari, foru lege horren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze-prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz, salbu: 4. eta 11. artikuluei dagokionez, iritzi baita Foru Komunitateko Administrazioari dagozkiola; 7.a.3) puntuari dagokionez, bakarrik baloratuko baitira beste administrazio publiko batzuetan lanpostu berean egindako zerbitzuak; eta garbitzailearen lanpostuari dagokionez, 7.b.2 artikulua izan ezik –atzerriko hizkuntzen puntuazioari buruzkoa– izan ere lanpostu horretanez da puntuatuko atzerriko hizkuntzen ezagutza.

94/2022 Alkate Ebazpenaren bidez, azaroaren 29koa, onetsi zen deialdia, lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Deialdia abenduaren 12ko 247. zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean (berezia) eta Udaleko web orrian argitaratu zen.

31/2024 Alkate Ebazpenaren bidez, martxoaren 11koa, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartu zuen Udalak, administrari ofizial lanpostu hutsa merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari dagokiona, egonkortze prozesuaren barnean, eta 10 egun balioduneko epea eman zuen erreklamazioak aurkezteko; erreklamazioetarako epea bukatu, inork ere ez du erreklamaziorik aurkeztu.





Horiek horrela, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz,

**ERABAKIA:**

1.- Onartutakoen eta baztertutakoen behin-betiko zerrenda onartzea: administrari ofizial lanpostu hutsa merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari dagokiona, egonkortze prozesu bereziaren barnean.

–Onartuak:

- Andoni Uhalde Pérez
- Maria Edurne Oronoz Zubillaga
- Maria Begoña Arano Galarza
- Ainhoa Echarri Soto
- Oihane Soroa Muguerza
- Amaia Sagastibeltza Azpiroz
- Olatz Zubiri Goizueta
- Idoia Saralegui Ochotorena
- Imanol Salinas Ijurco

–Baztertuak:

- Jacinto Bengoechea Mariezcurrena
- Maria Mercedes Etxeberria Goñi

2.- Larraungo administrari ofizial hutsaren deialdiko epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzea. Hona hemen:

- Epai mahaiburua: Mikel Uharte Martija.
  - Ordezkoa: Mikel Mugiro Sorabilla.
- Epai mahaikidea: Edurne Jaka Razkin.
  - Ordezkoa: Beatriz Alsua Noain.
- Idazkaria: Ana Alduntzin Navarro, Larraungo udal idazkaria.
  - Ordezkoa: Joanes Aleman Olló, Araitz-Beteluko idazkaria.

Ebazpen honen kontra, errekurso hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

1.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita edota GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

2.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

**Mugiron, Larraunen, sinadura elektronikoaren datan.**





LARRAUNGO  
UDALA

ALKATEA

3

IDAZKARIA

Ana Alduntzin Navarro

